

2020-2021 ikasturtearen hasiera txandaka egingo dugu:

- Irailak 14, 8:00etan. 3D, Marketina eta Kirola zikloetako BIGARREN mailako taldeak.
- Irailak 16, 8:00etan. 3D, Marketina eta Kirola zikloetako LEHENENGO mailako taldeak.
- Irailak 21, 8:00etan. Informatika zikloko BIGARREN mailako taldea.
- Irailak 23, 8:00etan. Informatika zikloko LEHENENGO mailako taldea.

Guztion segurtasun eta osasun-baldintzak bermatzeko, hona hemen egun horretan jarraituko dugun protokoloa. Mesedez, **ARRETAZ IRAKURRI ETA BETE**.

1. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomarik ohikoenetako bat (sukarra, hotzikarak, eztula, aire-faltaren sentrazioa, usaimena eta dastamena gutxitzea, eztarriko mina, muskuluetako mina, buruko mina, ahultasun orokorra, beherakoa edo okadak) izanez gero, **EZ ZARA ikastolara joango**. Sukarrik ez duzula ziurtatzeko jarri termometroa etxetik atera baino lehen.
2. Ondorengo **HIGIENE ETA PREBENTZIOko kita** ikastolara eraman beharko duzu:
 - a. Maskara bi.
 - b. 100 ml-ko gel hidroalkoliko ontzitsua (bertan zure izen-abizenak idatzita).
 - c. Paperezko zapiak.
3. **Ezinbestekoa da maskara erabiltzea** ikastolako espazio guztietan. Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.
4. Ikastolako sarreran **gel hidroalkolikoa botako** duzu.
5. Ikastolako pasabidetik **eskumaldetik ibiliko** zara eta **seinaleztatutako zirkuitua jarraituko** duzu zure ikasgelara joateko. Pilaketak saihesteko, ikastolara heldu ahala, zure ikasgelara joango zara:

Lehenengo mailako taldeak:

3D1	INFORMATIKA1	MARKETINA1	KIROLA1
401 ikasgela	403 ikasgela	410 ikasgela	409 ikasgela

Bigarren mailako taldeak:

3D2	INFORMATIKA2	MARKETINA2	KIROLA2
402 ikasgela	404 ikasgela	407 ikasgela	1 solairua

6. Ikasgelara heltzerakoan, irakasleak **adierazitako postua okupatuko** duzu.

ESKERRIK ASKO ZURE KOLABORAZIOAGATIK!